

LEHEN HEZKUNTZAKO GRADUA
2013-2014 ikasturtea
ESKOLAKO ETA ETXEKO AZENTUA

Egilea: Aiora Burgoa Urrutia

Zuzendaria: Iñaki Gaminde Terraza

Data eta sinadura: Leioan, 2014ko Ekainaren 4an

ZUZENDARIAREN ONIRITZIA



EGILEAREN ONIRITZIA



Aurkibidea

SARRERA.....	4
MARKO TEORIKOA	6
Ondarroako Azentu Sistema	10
Hitz markatuak eta ez markatuak.....	10
Sintagma amaierako azentudun hitz ez markatuak	13
Behe bokalen asimilazioa eta bokal hutsak	14
Hitz markatuak.....	15
Euskara Estandarraren Eredua.....	17
METODOLOGIA.....	18
LANAREN GARAPENA.....	20
Emitzak.....	20
Emitza Kuantitatiboak	20
Emitza Kualitatiboak.....	20
Ondorioak.....	23
BIBLIOGRAFIA.....	26
ERANSKINAK	29
1. Eranskina: Hitzen zerrenda	29
2. Eranskina: Kalkulu orrien adibideak.....	30

ESKOLAKO ETA ETXEKO AZENTUA

Aiora Burgoa Urrutia

UPV-EHU

Lan honetan hamar neska-mutil gazte ondarrutarren azentu ereduaren ezaugarri nagusiak aztertzen dira. Alde batetik, beraien ama hizkuntzaren eredu, hemen etxeko eredutzat aurkezten da, eta bestetik, euskara estandarra edo eskolakoa. Helburua, eredu bi hauek zeharo ezberdinak izateaz gain, bi hizkuntza ezberdin bezala funtzionatzen dutela frogatzea da. Horretarako, izen eta adjektiboen zerrenda bat egin eta azentuari zer gertatzen zaion aztertu da. Ondoren, smartphone batez baliatuz informanteak grabatu eta hauen transkripzioak egin dira. Azkenik, emaitzak analizatu ondoren, hasierako helburua betetzen dela ikusten da, hots, eredu biak ezberdinak direla. Ondorioz, eskolarako proposamenak sortzea ezinbestekoa da.

Etxeko eredu, eskolako eredu, prosodia, azentua, eskolarako proposamena

En este trabajo se estudian las principales características del sistema acentual de diez jóvenes ondarreses. Por una parte, se investiga su lengua materna, el que aquí se muestra como el modelo de casa, y por otro lado, el de la escuela. El principal objetivo es demostrar que además de ser completamente distintos, estos dos sistemas acentuales funcionan como dos idiomas distintos. Es por eso que se ha efectuado una lista de sustantivos y adjetivos y se ha comprobado lo que pasa con el acento. A continuación, se ha grabado a los informantes. Por último, se han analizado los datos y se ha visto que en definitiva los dos sistemas acentuales son completamente distintos. Por consiguiente, es necesario crear propuestas didácticas para la escuela.

Etxeko eredu, eskolako eredu, prosodia, azentua, eskolarako proposamena

In this work the main characteristics of the accentual system of ten young people from Ondarroa are studied. On the one hand, their mother tongue, or as here presented as the home model has been investigated, and on the other hand their school model. The main objective is to prove not only that both accentual systems are completely different but also that they work like two different languages. That is why a list of nouns and adjectives have been elaborated in order to observe what happens to the accent. Next, the informers have been recorded. Finally, the data has been analysed and in the end it has been proved that both accentual systems are totally different. As a conclusion, it is necessary to create didactic projects for school.

Etxeko eredu, eskolako eredu, prosodia, azentua, eskolarako proposamena

SARRERA

Jakintasunetik ez jakintasunera, hurbiletik urrunera, dakigunetik ez dakigunera, hori da, hain zuzen ere Magisteritza ikasketetatik ateratako ondorio nagusia. Hizkuntzetan ere, beste arloetan bezala etxetik abiatuta kanporantz jotzen dugu. Euskara lehenbizi, gaztelania geroxeago eta atzerriko hizkuntzak azkenik.

Ondarroan bizitzeak eta aldi berean euskaldun zaharra izateak hizkuntzekiko grina sorrarazten du. Gardner (1983) psikologoak proposatutako ereduren inteligentzia linguistikoaren barnean murgildurik, batez ere karrerako azken urteko Atzerriko Hizkuntzako minorrean, hizkuntzen ikaskuntzari aurre egiteko eraginkortasuna lortuz. Euskaraz eta gaztelaniaz gain atzerriko hizkuntzan ekoizpen eta ulermen zuzena etorkizunean testuinguru eleaniztunetan lan egin ahal izateko. Ondorioz, jakintza hau guztia lehen hezkuntzako arlo guztietan aplikatuz.

Hizkuntza baten ikaskuntza amaren barnean gaudenetik hiltzen garenerainoko prozesu luze baten ondorioz gertatzen da. Antzina, hizkuntza araez beteriko sistema estrukturaltzat jotzen zen. Horrez gain, hizkuntzen ikaskuntzako teoria kondukistak edo konduktismoak, hizkuntza errepikapen eta imitazio bidez ikasten zela baieztatzen zuen. Alabaina, pentsaera horiek aldatze aldera korrante kognitibista eta konstruktibistak agertu ziren. Ondorioz, hizkuntza ez da bakarrik gizabanakoen garapen kognitiborako ezinbestekoa izango, baizik eta komunikaziorako tresna ere bilakatuko da.

Aurreko paragrafoan agertu den komunikazio hitza gaur egungo irakaskuntzarako funtsezkoa izango da. Izan ere, Hymes (1972) hizkuntzalariarentzat: “the goal of language teaching is to develop a *communicative competence* that is the knowledge and ability a learner needs to be communicatively competent in a speech community”.

Ikasleek gaitasun komunikatiboa eremu ugaritan eta era ezberdinetan gara ditzakete ahoz zein idatziz. Hala eta guztiz ere, lan honetan ahozkoitasuna, eta konkretuki, azentua izango da aztergai. Zoritxarrez ikasgeletan ez zaio

eman behar litzaiokeen garrantzirik ematen eta beraz alde batera uzten da. Euskal Autonomi Erkidegoko Curriculumean (2010) agertzen diren erreferentzia bakarrak ondorengo hauek dira:

[...]Hain zuzen ere, hauexek ikasten dira: bai komunikazioaren printzipio, estrategia eta arauak, bai testuen forma konbentzionalak, bai testuaren parteak multzo kohesionatuan artikulatzeko prozedurak, bai esaldi zentzuzkoak eta gramatikalak eraikitzeke erregela lexiko-sintaktikoak, bai arau ortografikoak eta prosodikoak (2010:185);[...]Hizkuntza ikasten ari direnen ahoskera eta intonazioa errespetatzea, bai eta euskalkiak ere (2010:198). (Lehen Hezkuntzarako Dekretu Curricularra EAEn 2009/2010)

Dekretuan aipamen gutxi eta eskasa egiten zaion arren, halabeharrezkoa da ikasgelan ahozko komunikazioa lantzea, hura ere gaitasun komunikatiboaren parte baita.

Aztertuko dudan gaiaren izenburua, “Ahozkoaren Jabekuntza eta Garapena” da. Gaia horrela emanda zabalegi suertatzen denez gero, lehen aipatutako gaitasun prosodikoaren aspektu konkretu batetan jarriko dut arreta; azentuan, hain zuzen ere.

Euskaltzaindiak azentuari dagokionez ez du oraindik arau zehatzik eman ahozko hizkuntzaren estandarizaziorako. Hala eta guztiz ere, hainbat eta hainbat azterketa eta ikerketa egin dira inguruan (Gaminde, 2010, 2011) eta (Hualde 2011). Aurreko paragrafoan aipatu bezala, nire aztergaia azentua izango da. Konkretuki etxeko azentuaren eta eskolako azentuaren arteko erkaketa bat eginez. Hizkuntzalaritzan, azentua hitz bateko silaba bateri ematen zaion gailentasuna izateaz gain, erritmo eta intonazioarekin batera prosodiaren hiru osagaietariko bat da.

Lehen esan dudan bezala, jadanik egin dira hainbat ikerketa, horietatik abiatuta nirea burutuko dut. Azentuan bertan hainbat aspektu ezberdin iker daitezkeen arren, nire asmoa izen eta adjektiboak zein talde klitikoak aztertzea da.

Ondarroako euskara darabilt nik neure egunerokoan eta euskara estandarra edo batua eremu akademikoan edo unibertsitatean. Hori horrela, delarik, hizkera biak entzunaz batera norbera ohartzen da etxean eta eskolan erabiltzen dugun euskara ez direla berdinak. Izan ere, aspektu askotan ezberdintzen dira, hala nola, hitzak, esaerak, tonua, intonazioa, azentua ...

Hortaz, batak ez dio besteari eragiten, hots, ez dira nahasten, bi hizkuntza ezberdin dira. Egia da entzunaz ohartu gaitzkeela ezberdintasun horiez, hala ere azterketa zehatz bat egingo dut frogatzeko benetan nire hipotesia betetzen den ala ez. Horretarako, lehen esan bezala izen eta adjektiboen zerrenda bat egin eta hitz horien azentuari zer gertatzen zaion ikusiko dut. Ondoren, hitz horiei “da” adizki klitikoa gehituko zaie. Alde batetik, etxeko azentu moldearen ezaugarriak ateraz, eta beste alde batetik eskolako ereduarenak.

Ondarroan asko eta asko dira egoera honetaz ohartzen diren herritarrak. Dena den, agian ez diote benetan arretarik jarri. Desberdinak diren begien bistako den horretan gelditu dira soilik. Hori gutxi balitz, eskolan ere itzalean diharduen kontua da. Garatu beharreko gaitasuna da gaitasun prosodikoa, batik bat, alde batetik irakasle gehienak formatu gabe daudelako gaian eta ondorioz ezin dute gaia landu ikastetxean eta beste alde batetik, ikasleak biziki nahastuta dabilzalako hitz egite zein irakurtzeko orduan. Nire helburua etxeko zein eskolako azentu moldeak aztertzea da, ondoren proposamen didaktiko bat gauzatzuz, ikasleek euskara bien produkzio egokia lor dezaten.

MARKO TEORIKOA

Aztertu beharrekoari zuzenki heldu aurretik, beharrezkoa litzake gaia bere testuinguruan kokatzea. Horretarako, ahaztu ezin litekeen gaitasun prosodikoa zer den aipatzea zein azaltzea ezinbestekoa izango da.

Asko eta asko izan diren arren prosodiaz aritu diren profesionalak, ez dira guztiz ados jarri berau definitzeko orduan. Izan ere, erabat malgua den

kontzeptua izateaz gain eragile askoren menpe agertzen zaigu. Hori dela medio, hainbat eta hainbat definizio aurki ditzakegu.

Fujisakin (2004:6) hitzetan, prosodia, hiztunak ezaugarri segmental zein suprasegmentalen bidez transmititzen duen informazioa da. Horrez gain, ezaugarri horiez honako hau dio: “Y puede ser de tres tipos: lingüística, paralingüística y lingüística”. (Fujisaki, 2004:6)


Shih & Kochanskiri (2002) dagokienez, prosodia zentzu zabalean hartuta, ahozkotasunarekin loturik agertzen diren ezaugarriei dagokie. Gainera, ezaugarri hauek daramaten informazioa ezin daiteke aurreikusi arrazoiaren baitatik. Informazio honek, batik bat; tonua, iraupena, hedadura eta keinuak barne hartzen ditu. Autore hauen ustez, prosodiak, lexiko hutsetik ezin ondoriozta daitekeen informazioa darama eta gainera, komunikaziorako ubide da. Azkenik, honako hau diote: “All aspects of prosody are transmitted by muscle motions, and in most of them the recipient can perceive, fairly directly, the motions of the speaker. Even in intonation, pitch has a fairly smooth relationship to the underlying muscle tensions”. (Shih & Kochanski, 2002)

“La prosodie (c’est a dire les règles d’accent, de rythme, de mélodie, de débit et de pause) n’est pas seulement le moule dans lequel se réalisent les phonèmes d’une langue. On ne souligne jamais assez l’importance de sa fonction expressive”. (Philippe Mijon, 2014)

Aurretik aipaturiko autoreak bezala, honek; azentua, erritmoa eta iraupena bezalako ezaugarriak azpimarratzen ditu. Shih & Kochanskirekin bat dator komunikazio funtzioari dagokionez. Izan ere, bere aburuz, prosodiaren funtzio komunikatiboari ez baitzaio eman behar litzaiokeen garrantzirik ematen. Prosodiak, beraz; zoriontasuna eta tristura bezalako sentimenduak eta zalantza eta ironia bezalako jarrerak adieraz ditzagun ahalbidetzen du.

Gaitasun prosodikoa ere gainontzeko komunikazio gaitasunen legez garatu beharreko gaitasuna da. Izan ere, garapen horretan bi kontzeptu garrantzitsuk parte hartzen dute: jabekuntzak eta ikaskuntzak. Krashenek (1982) bere lanean egin zuen bereizketaren arabera, lehenengoan ikaskuntza era natural eta inkontzientean ematen den bitartean, bigarreanean hizkuntzaren arauak era kontzientean ikasten dira. (Krashen 1982:10).

“Ahozko komunikazio gaitasunaren azpi-gaitasuntzat hartzen dugu gaitasun prosodikoa, mezuaren pertzepzio eta produkzio egokiari eragiten baitio” (Garay eta Etxebarria, 2010, Garay eta lag. 2011, 2012). Izan ere, azpi-gaitasun horien elkarrekintzatik sortzen baita xede den gaitasun komunikatiboa. Hori gutxi balitz, komunikazio gaitasunaren beste azpi-gaitasunekin; hala nola, gaitasun linguistikoa, gaitasun diskurtsiboa, gaitasun soziokulturala eta gaitasun pragmatikoarekin eskuarki lotuta agertzen zaigu. Hurrengo irudiak gaitasun horien guztien arteko erlazioa ikus daiteke.



1. Irudia: Gaitasunen arteko erlazioa ahozkotasunean (Gaminde eta lag. 2011)


Azentua hitzaren eremuan silaba batek daraman prominentzia edo nagusitasun prosodikoa da. Hots, silaba batek beste guztiek baino prominentzia handiagoa izango du, hitzaren gailur prosodikoa hartuz. Hau frogatzeko, esate baterako, *etxea*, *mutila eta liburua* bezalako hitz batzuk hartu, ahoz esan eta nagusitasun hori zein silabatan gertatzen den konturatzen ahalegintzea izango litzateke.

Gaur egun munduan 6000 hizkuntza inguru daude eta horietatik, hirurogeita zortzi Europakoak dira, euskara barne. Jatorriz ezezaguna izateaz gain, hizkuntza minorizatua ere bada. Alabaina, Hymanek (2009) munduko hizkuntzen sistema prosodikoen sailkapenean kokatu du.

English.....W.Basque.....Tokyo Japanese.....Luganda.....Mandarin

Euskal Herrian eredu asko eta ezberdinak daude. Alde batetik euskara batua dago, eta beste alde batetik eremuka hitz egiten diren euskalki eta azpi-euskalkiak. Aurreko paragrafoan aipatutako sailkapenean ageri den eredua mendebaldekoa da. Hots, Getxotik Ondarroaraino hedatzen dena. Beraz, jada entzutea bazuen ere, munduko hizkuntzen sistema prosodikoen artean kokatu du. Ondarroako ereduari garrantzi izugarria ematen dio.

Lan honen bidez Ondarroako azentu moldearen eta euskara batuaren arteko ezberdintasunak aztertuko dira. Hori dela medio, Ondarroako azentutik hastea litzateke onena. Euskal Herrian azentu sistema ezberdinak izateaz gain, zonaldeka bereizita daude. Ondarroako azentua Bizkaiko mendebaldeko azentu sistema klasikoaren barnean sailkatzen da, Gamindek (2007) lan baten adierazten duen bezala. Hain zuzen ere, bertan sei azentu sistema ezberdin nagusi aurki daitezke: (1) Getxo-Gernika, (2) Lea-Artibai, (3) Txorierrri, (4) Arratia, (5) Durangaldea eta (6) Hego-Bizkaiera.



2.Irudia: Bizkaiko azentu klasikoaren hedadura

Ondarroako azentua beraz, Lea-Artibai Eskualdeko azentu sistemaren barnean dago eta ikerketa ezberdinak egin dira beronen inguruan. Hualdek

(1996), honako ¹bitxikeri hau esaten du Ondarroako azentuari buruz. José Ignacio Hualde ez da Ondarroako azentua aztertzen aritu den linguista bakarra, baina ikerketa berritsuena eta sendoena egin duena da. 1996an *Lingua* izeneko aldizkarian argitaratutako lanean Ondarroako azentuaren inguruko azterketa sakona egin eta beroni buruzko hainbat ezaugarri atera zituen hizkuntzalaria dugu.

Hualdek dioenez, egun zaila litzateke bibliografian eredu fonologiko tradizionalarekin bateraezina den adibiderik aurkitzea. Hala eta guztiz ere, Ondarroako euskara kontrakotasun horren adibide da. Izan ere, aurki daitezkeenetik azentu sistema zailentzat jotzen du.

Jarraian, ondorengo bi azpi puntuetan, euskara batuaren zein Ondarroako euskararen azentu sistemaren ezaugarriak zerrendatuko dira.

Ondarroako Azentu Sistema

Hurrengo atalean Ondarroako Azentu Sistemak dituen ezaugarri nagusien artean aurkitzen diren azpi-atalak aztertu eta azalduko dira.

Hitz markatuak eta ez markatuak

Ondarroako euskarari so egin eta testuinguru ezberdinetan aurkitzen diren hitzen izaera prosodikoari erreparatuz gero, lau talde nagusi bereiz daitezke:

(1) a. *Flexiorik ez duten hitzak*

lau gíxon

lau alába

lau ínndar

lau eskóla

b. *Izenak singularrean*

¹ The dialect of Ondarroa arguably presents the most complex accentual system found in any Basque variety. Like in other western Basque varieties, in Ondarroa surface pitch patterns are the expression on an underlying distinction between accented and unaccented morphemes (see Hualde 1991, to appear; Hualde and Bilbao 1993). Whereas words containing lexical accents are assigned surface prominence by a word-level rule, lexically unaccented words are only subject to phrase-level accentuation.

gixóna alabí inddárra eskóli

c. Izenak singularrean eta “da” aditz kopulatiboa

gixoná ra alabí re indárra ra eskóli re

Lehen taldeko lehen atalean; gixon “gizon”, inddar “indaba”, alaba “alaba” eta eskola “eskola” hitzak ageri dira. Alde batetik, hitz hauek flexiorik ez dute, hots, aldaezinak dira lau zenbakia daramatelako aurretik. Horrez gain, esaldietan tonua igotzen doa bigarren silabatik azkenaurrekora.

Ondoren, bigarren atalean izenak , beti ere singularrean, era bakartuan agertzen dira eta “alabí” izenak azentua azken silaban duen bitartean, gainerako hitzek, azkenaurrekoan “gixóna”.

Azkenik, izenak daude singularrean “da” aditz kopulatiboa dutelarik atzetik. Azentu aldetik hirugarren eta azken kasu honetan ematen den berezitasun garrantzitsuena (1c) kasukoa da. Goian antzeman daitekeen bezala, “alabí”, “inddárra” eta “eskóli” hitzei “da” (-ra edo -re ahoskatua bokalaren altueraren arabera) gehitzean, azentua ez dela mugitzen argi dago. Alabaina, “gixóna” hitzaren kasuan azentua mugitu egiten da. Hori dela medio, bereizketa bat egiten da. Azentua mugitzen ez bada, hitz markatua izango da, hots, azentu lexikoa duena, eta azentua mugitzen baldin bada, hitz ez markatua izango da, azentu lexikorik gabea alegia.

(2) Gixon-a-k “gizonak (ergatiboa)”

Gixon ederra-a-k “gizon ederrak (ergatiboa)”

Gogoan hartu behar da euskaraz soilik izen sintagmako azken hitza aldatzen dela genero eta numeroan, goiko kasuan bezala.

(3) Gixóna “gizona”

Gixoná ra “gizona da”

Gure gixonantzakó ra “gure gizonarentzako da”

Gure gixon edérra “gure gizon ederra”

Gure gixon ederrá ra “gure gizon ederra da”

Gure gixon ederrantzakó ra “gure gizon ederrarentzako da”

Ondarroako euskarán, azentu lexiko gabeko edo hitz ez markatuak dituzten sintagma prosodikoetan, tonua bigarren silabatik azkenaurrekora doa igotzen.

(4) Inddárra “indaba”

inddárra ra “indaba da”

gure inddarrantzáko ra “gure indabarentzako da”

gure índdar edérra “gure indaba ederra”

gure índdar ederrá ra “gure indaba ederra da”

gure índdar ederrantzakó ra “gure indaba ederrarentzako da”

Bestalde, hitz markatuetan, hots, azentu lexikoa dutenetan, tonu jaitsiera gertatzen da hitzaren azkenurreko eta azken silabaren artean. Adibidez, inddar “indaba” hitza, goian ikus daitekeen bezala mota honetakoa da.

(5) sú en lengú so gu surtí xe ra “zuen lehengusu gezurtia da”

Esaldi batean hitz markatu bat baino gehiago egotea posiblea da adibide honetan ikus daitekeen bezala. Gainera, guztiek eredu tonal berbera erakusten dute (azkenurreko eta azken silabaren artean tonu jaitsiera). Adibidean, hitz guztiak dira hitz markatuak aditz kopulatiboa “da” izan ezik.

Ondarroako euskararen azentua dela eta, bi ondorio nagusi atera daitezke:

(6)

- a) Hitz ez markatuek bakarrik sintagma mailan daukate prominentzia (azkenurreko silaban)
- b) Hitz markatuek hitz mailako prominentzia daukate, azkenurreko silaban.

Sintagma amaierako azentudun hitz ez markatuak

Azpi-puntu honetan hitz ez markatuen berezitasunak azalduko dira, sintagma amaierako azentudun hitz ez markatuak, besteak beste.

(7) Alabí “alaba”

Alabí re “alaba da”

Gure alabintzakó ra “gure alabarentzako da”

Gure alaba edérra “gure alaba ederra”

Gure alaba ederrá ra “gure alaba ederra da”

Gure alaba ederrantzakó ra “gure alaba ederrarentzako da”

Lehenengo puntuan agertzen den “alaba” hitza seigarren puntuan aipatu dugunaren salbuespena izango litzateke. Izan ere, azentua hitzaren azken silaban duelako gainerako ez markatuek ez bezala.

Lehen aipatutako salbuespena ulertzeko, singularrean agertzen diren ondorengo hitzen sailkapen morfo-fonologikoa kontuan hartu behar da. Euskalki askotan hitzaren erroa bokalez amaitzen denean, eta honi ondoren “a” mugatzailea gehitzean, bi bokaleko hitz berri bat sortzen da buru hitzetik burue adibidez. Markinan esate baterako, behean ikusgai diren emaitzak aurkitu dira.

(8) Markina

Flexiorik gabekoak

Izenak singularrean

Gixon

gixona

“gizon”

Lagun

lagune

“lagun”

Etxe

etxie

“etxe”

Baso

basue

“baso”

Mendi

mendixe

“mendi”

Buru

burue

“buru”

Neska

neskie

“neska”

Ondoren, bederatzigarren puntuan hain zuzen ere, Ondarroako sailkapen morfo-fonologikoari zer gertatzen zaion ikusiko da.

(9) Ondarroa

Flexiorik gabekoak	Izenak singularrean	Izena + “da”
Gíxon	gixóna	gixoná ra
Lágun	lagúne	laguné ra
Étxe	etxí	etxí re
Báso	basú	basú re
Méndi	mendíxe	mendixé ra
Búru	burú	burú re
Néska	neskí	neskí re

Goiko “mendi” hitzaren kasuan, /-a/ -e bilakatzen da aurretik duen bokala /i/ goi bokala delako. Horrez gain, /x/ frikari ahoskabea jartzen zaie /i/ bokalarekin bukatzen diren guztiei. Honez gain, bi bokaleko sekuentzian bigarrena desagertu egiten da.²

(10) /gure abare-a/ gure abarí “gure abadea”

Kasu honetan /-a/ mugatzailea gehitzean, bokala ezabatzen da eta “abadea” esan beharrean “abari” esaten dugu. Nahiz eta bokalaren ezabatze prozesu hau agertu, oraindik ere sintagma amaierako azentuaren arauari eutsi egiten zaio.

Behe bokalen asimilazioa eta bokal hutsak

Azpi-atal honetan bokalekin zer gertatzen den aztertuko da. Hots, bokalen asimilazioarekin eta baita bokal hutsen kasuarekin.

² Izan ere, herriaren izena Ondarru da. (Ondarroa)

(11)	Gixon-a	“el hombre”	ixan da	“izan da”
	Ederr-a	“el guapo”	etorri re	“etorri da”
	Asal-a	“la piel”	Kóldo ra	“Koldo da”
	Lagun-e	“el amigo”	Péru re	“Peru da”
	Mutill-e	“el chico”	jun de	“joan da”

Lehen aipatu bezala, Ondarroako euskaran /-a/ mugatzailea [e] bilakatzen da goi bokal baten ondoren (tartean kontsonanteak agertu daitezkeelarik), goiko adibideetan ikus daitekeen bezala³.

(12)	Lagune	“laguna” (singularra)
	Lagunak	“lagunak” (ergatiboa)
	Mendire	“mendirira”
	Mendirako	“mendirako”
	Mendixe	“mendia” (singularra)
	Mendixan	“mendian”

Beste euskalki batzuetan ez bezala, arau honek baldintza bat du: bakarrik hitz amaierako prominentzia duten hitzei aplikatzen zaiela. Bestalde, hitzean bertan beste ezaugarriren bat agertzen baldin bada, araua ez da aplikatuko.

Hitz markatuak

Aurreko ataletan hitz ez markatuen kasuak aztertu badira ere, oraingo honetan hitz markatuekin edota berezko azentu lexikoa dutenekin zer gertatzen den azaltzen da.

(13)	Katun etxí re	kátun etxí re
	“katuaren etxea da”	“katuen etxea da”
	Katuné ra	katúne ra
	“katuarena da”	“katuena da”

³ Behe bokalen asimilazio araua hitz mailakoa da, baina aditz kopulatiboari eragiten dio (adibideetan eskuineko zutabeetan ikus daitekeen bezala)

Katuntzakó ra
“katuarentzako da”

katuntzáko ra
“katuentzako da”

Ondarroan azentu lexikoa duten hitzak esaldi baten jartzean, azkenurreko silaban eramango dute beti azentua hitzaren barneko morfemak azentu lexikoa edonon izanda ere. Pluraleko atzizki guztiak ere azentudunak dira. Goian azentugabeko genitibo singularra (ezker zutabea) eta azentudun genitibo plurala (eskuin zutabea) *katu* erro azentugabearekin batera ikus daitezke.

Azpian ikusgai dagoen hamalagarren puntuan hitz markatu eta ez markatuen arteko kontrastea antzeman dezakegu. Hitz biak era isolatuan hitz berbera dirudite, azentua leku berdinean dutelako. Hala ere, “da” adizki klitikoa gehitzerakoan, bien arteko ezberdintasuna argi eta garbi ikusten da.

- (14) Ez markatua Markatua
Inddárra (indarra) = Inddárra (indaba)
Indarrá ra (indarra da) ≠ inddárra ra (indaba da)
Inddár bat (indar bat) ≠ índdar bat (indaba bat)

Hualdek (1996) bere lanean bildu dituen ezaugarriez gain, Etxaburu, M. (2005) ondarrutarrak bere tesian honako ekarpen hau egiten du azentuaren inguruan.

Etxabururen hitzetan (2005), “Ondarrutarrez hitz egiten dugun gehienontzat azentua elementu bereizlea da”.

- Azentua berbak bereizteko erabiltzen da.

Astú (astoa) - ástu (ahaztu)

Astéko (astekoa) – ásteko (hasteko)

- Singularrak eta pluralak bereizteko balio du umí/ úmik

- Ondarroako hizkera, absolutibo singularrean, hitz gehienek patroï prosodiko bera erakusten dute: tonua bigarren silaban goratzen da (edo lehen silaban hitza bisilabaduna bada), eta azkenaurrekoan beheratzen. Hitz batzuetan, aldiz, goiko tonua azken silabaraino mantentzen da: **andixe/ alanbri**
- Hitz markatugabeak, talde prosodikoaren erdian daudenean, goiko mailan ahoskatzen dira, prominentziarik gabe inongo silabatan.
- Hitz markatu gabeek ez dute berez azenturik. Azentua talde prosodikoaren mailako azentua da, galdegaiaren azentua, hain zuzen ere, eta ez hitz mailakoa.
- Hitz markatuak, aldiz, azentu batekin agertzen dira beti, esan bezala, ingurune guztietan. Azentu lexikoa hitzaren azkenaurreko silabara mugitzen da.
- Oinarri markatu gabeekin singularra eta plurala bereizten dira azentuaren aldetik, pluralezko morfemak azentudunak baitira. Oinarri markatuekin, aldiz, ez dago bereizketarik.
- Ondarroan, azentu bereizgarria erabiltzen da forma bikoiztuak ezberdintzeko: aréntzat /árentzat

Euskara Estandarraren Eredua

Ondarroako ereduaren ezaugarriak aipatu ondoren, euskara estandarraren ezaugarriak aztertuko dira. Lanean jada esan da euskara batuaren ahozko alderdiaren inguruan Euskaltzaindiak ez duela arau zehatzik eman. Hala ere, (Gamindek 2010, 2011) eta (Hualdek 2011) egindako lanetan ondorio batzuk atera zituzten. Jada sortua dagoen eredua hartu eta euskara estandarrean aritzen direnek maizen egiten dutena indartu eta finkatu zuten.

Hitz mailako azentu sistemaren arauak honela laburbiltzen dituzte:

- Hitza azentu eremutzat hartzen da. Izenen eta adjektiboen kasuan, erroa gehi mugatzailea eta aditzen kasuan partizipioa: lúrra, mendía, emán.
- Hitzetan silaba kopuruak kontatzen dira eta silaba bikoien kasuan bereizi egiten da gainerakoetatik.
- Silaba biko hitzetan azken silaba astuna bada, azken silaban txertatzen da azentua. Silaba astunak –n letrarekin bukatzen diren aditz partizipioak dira: egon, esan ...
- Era berean, silaba astuntzat jotzen dira azken silaban beheranzko diptongoren bat daukatenak: baloi, limoi ...
- Azken silaba astuna ez bada, azentua ez da inoiz bertan txertatzen, hots, azken silaba arina denean estrametrikala da, eta silaba bikoien kasuen libre geratzen den silaba bakarrean txertatuko da: érre, áita, lúrra...

Ondarroako euskarari ez bezala, euskara estandarrean ez dago hitz markaturik. Hala ere egia da badaudela prosodikoki markatuak (azentudunak) direnak. Batzuk eremu zabalagoan ezagutzen dira (lékua, básua, e.a.) eta beste batzuk murriztagoan (bázkari, íntxaurra). Bestalde, hitz markatuak egiten ez badira, oraintsu aipatutako kasuetan izan ezik, gainerako guztietan azentua hitzaren hasieratik kontatzen hasita bigarren silaban txertatuko da.

METODOLOGIA

Lanean zehar aipatu bezala, Euskaltzaindiaren Ahoskera Batzordeak emandako gomendio gutxi batzuk izan ezik, ahozkoaren inguruan arau finkorik ez da eman. Hori horrela izanik, urteetan zehar bai erdaldunei bai euskaldunei irakatsi izan zaien euskara arau gabeko hizkuntza izan da. Hori gutxi balitz, toki bakoitzeko irakasleek prosodiaren inguruko formaziorik izan ez dutenez, bakoitzak bere intuizioz baliatuz irakatsi du.

Lan honen bidez, hasieran planteatutako hipotesia betetzen den ala ez frogatu nahi da. Hots, Ondarroako herritarrek euskara batua darabiltenean euren jatorrizko azentu eredua aldatu egiten dutela eta ondorioz bata ez duela

zerikusirik bestearekin. Horretarako, atal honetan, zer eta nola egin den azalduko da.

Ikerketari hasiera emateko, lehenik eta behin, informatzaileak ezinbestekoak izan dira. Hain zuzen ere, 18-30 urte bitarteko hamar neska-mutil ondarrutar hartu dira. Erdiak guraso erdaldunak dituzte, bi neskak eta hiru mutilek⁴. Hala ere, bat izan ezik guztiak euskaldun zaharrak dira, euren ama-hizkuntza euskara da eta etxeko eredu nagusia Ondarroako euskara. Horrez gain, denek ikasi dute txikitatik D ereduan; erdiak Unibertsitate ikasketak burutu dituzte, bik goi-mailako zikloa egin dute beste bi Batxilergoa egiten ari dira eta batek graduatua du.

Informatzaileak lortu ondoren, galdekizuna dugu. Galdekizuna osatzeko, izen eta adjektibo ezberdinen zerrenda osatu da, guztira hogeita bi hitz izanik. Izenen artean; *denda, ogia eta alkandora* aurki daitezkeen bitartean, adjektiboetan *aberatsa* dugu (ikus 1. eranskina).

Azterketaren hurrengo pausua grabaketarena litzateke. Eredu bien arteko ezberdintasunak antzemateko hain zuzen ere. Hitzak gazteleraz esango zaizkie, ondoren beraiek euskaraz esateko. Grabaketak gaur egungo smartphone edo mugikor inteligente batekin egin dira, betiere isiltasuna egon den leku itxi batean. Azkenik, datuen trataerarako metodologiari dagokionez, grabazioak entzun eta gero, datuak analizatu eta bien arteko ezberdintasun nagusiak aztertu dira.. Nire asmoa alde batetik, hitzak era bakartuan eta ondoren “da” adizki klitikoa gehitzean azentuekin zer gertatzen den ikustea da. Lehenengo beraien etxeko euskararen, eta ondoren eskolakoan. Behin hori eginda, bien arteko ezberdintasun nagusiak aztertuko dira. Horrez gain, aurreikusi ez diren erantzunak ere jaso daitekeenez, horiek ere kontuan hartuko dira.

⁴ Mutiletako batek guraso biak ditu erdaldunak, eta gainerako neska-mutilen gurasoetatik bat da erdalduna. Ondarroan arrantza bere puntu sendoenean zegoenean, Galizia eta Andaluziatik jende askok emigratu zuen. Hori dela medio, askok eta askok guraso erdaldunak dituzte. Hala ere, hori inoiz ez da oztopo bat izan Ondarroan euskararen ikaskuntza ziurtaturik baitago.

LANAREN GARAPENA

Atal honetan inkesten emaitzak aztertuko dira. Hau da, grabaketak entzun eta gero ateratako ondorio ezberdinak. Alde batetik, exceleko kalkulu orri batez baliatuz datuen analisi kuantitatiboa egingo da, eta beste alde batetik, arauak erabiliz azterketa kualitatiboa burutuko da. Azkenik, bukatzeko ondorioak ere aterako dira.

Emitzak

Emitzen azpi-atal honetan, alde batetik emaitza kuantitatiboek, hots, datuek diotena azalduko da eta beste alde batetik arauak konparatuko dira, hau da, emaitza kualitatiboek buruzko informazioa emango da.

Emitza Kuantitatiboak

Lehen esan bezala, kalkulu orriaz baliatuz (ikus 2.eranskina) analisi kuantitatiboa burutuko da. Azterketa horretan, hitz horien azentuarekin zer gertatzen den behatuko delarik. Berau egiteko, dokumentuan bertan filtro berezi batzuen bidez hitzak hiru modu ezberdinetara zerrendatuko dira; berdin azentuatzen direnak, ezberdin azentuatzen direnak eta lexikoa dela eta aldatu direnak. Ondoren, guztiak zenbatu eta batezbestekoa aterako da.

%68,18 berdin azentuatzen diren hitzei dagokien ehunekoa da. %23,17, berriz, ezberdin azentuatzen direnena. Azkenik, lexiko aldetik gertatu diren aldaketak datuen %8,65 hartu dute. Datuei so eginez, azalean eredu biek nahiko antzekoak dirudite, izan ere azentua leku berdinean daramaten hitzen ehunekoa altua baita.

Emitza Kualitatiboak

Emitzen azpi atal honetan emaitza kualitatiboak aztertuko dira. Horretarako lehenbizi etxeko ereduaren egoera aztertuko da eta ondoren eskolakoa.

1. Etxeko Eredua

Etxeko ereduan hitz ez markatuen kasuaz gain hitz markatuen kasua ere aztertuko da, izan ere, bereizketa hau ezinbestekoa da.

a) Ez markatuetan

Hitz ez markatuek ez dute azentu lexikorik eta azentua txertatzeko eremua talde klitikoa izango da, 2] arauaren arabera. Hots, hitzaren hasieratik kontaktzen hasita bigarren silaban.

Hitza	Klitikoa	Hitza	Klitikoa
Úre	Uré ra	Txakúrre	Txakurré ra
Lúrre	Lurré ra	Neskí	Neskí re
Ogíxe	Ogixé ra	Alargúne	Alargúne ra

1. Taula: Hitz ez markatuak etxeko ereduan

Hitz hauei guztiei “da” adizki klitikoa⁵ gehitzean, azentua azken silabara mugitu zaie taulan ikus daitekeen bezala. Hain zuen ere, inkestatzaileen %100ak prozesu hau jarraitu dute hitz ez markatuen kasuan.

b) Hitz markatuetan

Hitz markatuak azentu lexikodun hitzak dira, hots, berez dute azentua. Ondorioz, beti azentuarekin agertuko dira.

Hitza	Klitikoa	Hitza	Klitikoa
Máxe	Máxe ra	Básu	Básu re
Txístu	Txístu re	Intxáurre	Intxáurre ra
Déndi	Déndi re	Léku	Léku re

2. Taula: Hitz markatuak etxeko ereduan

Hitz markatuen kasuan, ez markatuekin ez bezala, “da” adizki klitikoa gehitzean azentua ez da mugitzen. Inkestatzaileen grabaketak aztertuz, taulan ikusgai dauden hitz batzuk ez markatuak egiteko tendentzia agertu da. Esate baterako, “txístu” (txistua) hitza era isolatuan %90ak markatua egiten du eta

⁵ “Da” adizki klitikoa gehitzerakoan izenari edo adjektiboari etxeko ereduan bokalaren altueraren arabera “ra” edo “re” esango da.

%10ak ez markatua, hau da “txístú” (listua) esaten dute. Klitikoa egiterakoan, ordea, diferentzia handitzen doala ikus daiteke. Izan ere, %80ak markatua egiten duen bitartean %20ak ez markatua egiten du. Hurrengo kasua “intxáurre” hitzarena da. Era isolatuan %100ak egiten du markatua, baina “da” gehitzean %60ak markatua egiten duen bitartean %40ak ez markatua egiten du, hau da, “intxaurre ra” esaten du, eta denak mutilak dira. Azkenik, pertsona batek “léku” hitza ez markatua egiten du, hau da, “lekú” esaten du. Azken kasu hau berezia da denen artean, izan ere euskaldun berria baita eta horregatik kokatu du ezberdin azentua. Ikus daitekeen bezala, belaunaldi honetan hitz markatuak ez markatu egiteko tendentzia bat agertzen ari dela antzematen da.

2. Eskolako Eredua

Azpi-atal honetan etxeko ereduko ezaugarri nagusiak aztertuko dira. Lehenik arau orokorra azalduz eta ondoren hitzen tendentzia ikusiz.

a) Arau orokorra

Etxeko ereduan ez bezala, eskolako ereduan ez da hitz markatu eta ez markatuen arteko bereizketarik egiten. Batik bat, berez ez dagoelako hitz markaturik. Eskolako ereduko arau orokorrak dioenez, azentua txertatzeko arau nagusia [2 araua da. Hots, hitzaren hasieratik kontaktzen hasita bigarren silaban, azentua txertatzeko eremua hitza izanik. Hitza, berriz, silaba arinekoa bada, estrametrikal < > egiten da adibidez, ura=ú<ra>.

Lehen esan bezala, eskolako ereduan ez dago berez hitz markaturik. Batik bat, hauek ez egiteko tendentzia ematen ari delako Euskal Herri osoan. Ondarroako inkestatuen kasuan ere tendentzia bera dagoela ikusten da hitz batzuetan.

Hitza	Klitikoa
Txístua	Txístua da
Básoa/Edálontzia	Básoa da/Edálontzia da
Dénda	Dénda da
Lengúsua	Lengúsua da

3. Taula: Hitz markatuak eskolako ereduan

“Txístua” hitzaren kasuan, %20ak markatua egiten duten bitartean %80ak ez markatua egiten du era isolatuan. “Da” adizki klitikoa gehitzerakoan, aldiz, %100ak egiten dute ez markatua. Eskolako ereduari kasu gehienetan azentua txertatzeko araua [2 denez gero, azentua hitzaren hasieratik hasi eta bigarren silaban kokatzen dute “txístúa” esanez eta hitz markaturik egin gabe. “Básoa” hitzaren kasuan denak “edálontzia” esan dute lexiko aldaketa ekarriz eta ondorioz ezin izan da ikusi zer tendentzia dagoen.

Aurreko atalean, azalean nahiko antzekoak diruditelako aipatu da. Hala eta guztiz ere, azterketa kualitatiboa egin ondoren. Hau da, arauak konparatu ondoren, errealitatea bestelakoa dela argi dago. Hori horrela izanik, ikerketaren hasieran esandakoa betetzen da. Hots, alde batetik etxeko ereduak eta eskolakoak berdinak ez izateaz gain, bi hizkuntzaren prosodia zeharo ezberdinak direla frogatzea lortuz.

Ondorioak

Hizkuntzari dagozkion alderdiak aztertzea erronka interesgarria da benetan. Izan ere, matematika edota estatistika ez bezala, hizkuntza ez da zientzia zehatz bat eta askoz ere subjektiboagoa da.

Karrerari zehar jasotako jakintzei esker, etxeko eta eskolako ereduak aztertu eta erkatu ahal izan ditut. Horretarako, lehenbizi hitzen zerrenda prestatu, ondoren informatzaileak lortu, grabaketak egin eta azkenik datuak aztertu dira.

Norbera entzunaz batera ohartzen da nire etxeko ereduak, hots, Ondarrutarra eta eskolakoak ez direla berdinak. Hala eta guztiz ere, horrekin ez da nahikoa. Hori dela eta, grabaketak entzun, hauen transkripzioa egin eta kalkulu orri batean (ikus 2. eranskina) kokatu dira. Gero, analisi kuantitatiboa eta kualitatiboa eginez. Esan behar da, azalean nahiko berdinak diruditen bi azentu sistema direla. Hori ondorioztatzeko, ehunekoei so egin baino ez daukagu. Eredu bietan berdin azentuatzen direnak %68,18, ezberdin %23,17 eta lexikoari dagokionez aldatuak %8,65 besteak beste. Alabaina, ondoren egindako analisi kualitatiboaren atzealdean dagoena begiratu, bata bestekin

zerikusirik ez duela ohartzen gara. Etxeko ereduari dagokionez, alde batetik hitz markatu eta hitz ez markatuen bereizketa egiten da. Horrez gain, azentua txertatzeko eremua talde klitikoa da eta 2] araua jarraitzen da. Eskolako ereduan, berriz, ez dira hitz markatuak eta ez markatuak bereizten. Batik bat, hiztunak markatuak ez egiteko tendentzia hartzen ari direlako Euskal Herri osoan. Azkenik, azentua txertatzeko eremua hitza da [2 arauari jarraikiz. .

Hau guztia aztertu ondoren eskolan honi ematen zaion trataera aztertu beharko litzakete. Eskolan hizkuntza irakasterakoan gramatikari edota semantikari garrantzi gehiago eman izan zaio ahozkoatasunari baino. Izan ere, bokalen eta kontsonanteen irakaskuntzara mugatu eta erritmo, azentu eta intonazioa bezalako ezaugarriak alde batera utzi dira. Hori dela medio, hainbat hizkuntzalarik beraien ikuspegia azaldu dute gaiaren inguruan.

2011ko urtarrilaren 27an eta 28an Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskolan burututako prosodia eta hezkuntzaren inguruko jardunaldietan hain zuzen ere, Hualdek (2011) ahozkoatasuna lantzearen aldeko ideia defendatzen zuen. Horrez gain, nahiz eta azentuaren inguruko arau zehatzik ez egon, azentua bigarren silaban kokatzearen araua hobetsi zuen eta berau lantzeko irakurketa ozena lantzea. Lehen aipatu dudan harira, Elordieta (2011) arauen eta prosodiaren arteko uztarketaz mintzatu zen; “The investigator would have to train them (students). Not “teach” them the rules, but train them in listening and perceiving main prominence”. Hortaz, autore hauek ematen dituzten aholkuak jarraituz eskolan prosodia landu daitekeela posible dela argi dago.

Ikasleek eskolan etxeko eredia, hau da, ondarrutarra darabilte beraien egunerokoan. Aldiz, idatzi eta irakurri eskolako ereduan egiten dute. Baina, horrek arazoa sortzen du, batez ere irakurtzeko orduan. Egoera hau konpondu nahian, edo behintzat arazoa gutxitzeko asmoz, eskolan ere hainbat jarduera burutu daitezke prosodia landu eta hizkuntzaz gehiago ikasi eta hausnartzeko. Ez nuen uste posible litzatekeenik, alabaina, aurten nire hirugarren praktketan Hualdek (2011) proposatutakoa lehen pertsonan ikusteko aukera izan dut. Izan ere, tutoreak hitz egiterakoan zein ozen irakurtzerakoan azentua bigarren silaban kokatzearen araua hobesten duela ohartu naiz. Horrez gain, etxeko

ereduaren azentu sistema mantenduz une oro. Horrela, eredu batetik bestera ez da hain salto handia antzematen.

Ondorioz, alde batetik esan behar da irakasle honek egiten duena ez dela batere erraza, baina ezinbestekoa litzateke ez badugu nahi gure ikasleek eredu batetik bestera hainbesterainoko aldaketa antzeman eta nahasturik ibiltzea. Beste alde batetik badago azentua lantzeko materiala eta horrez baliatuz, proposamen didaktiko ezberdinak egin daitezke.

Lehen Hezkuntzako 3.zikloko 5 eta 6.mailan ordu beteko saio baterako etxeko ereduari eta eskolako ereduari buruzko azalpen labur batzuk emango nituzke; hala nola, Ondarroako eredu munduko sistema prosodikoen sailkapenean sartu dutela eta horrek nola ez, entzute ikaragarria eman diola ... Eskolako ereduaren lehen urratsak azalduko nituzke, hots, noiz eta nola sortu zen. Ondoren euskara bien arteko ezberdintasunak azpimarratuko nituzke eta azkenik praktikara eramango nuke. Beraz, lehenbizi historia apur bat azaldu eta araei buruz zerbait esan ondoren ariketa batzuk planteatuko nituzke. Adibidez, hitz zerrenda bat hartu eta azentua nabarmentzeko txaloak erabiliko nituzke ... Saio posible honez gain, eskolan egunerokoan gabiltzala hurrei hizkuntzaren inguruan hausnartzeko egoerak eragin behar ditugu. Kasurako, “Nola esaten duzu hitz hau zure etxeko ereduari?” edota “Galde iezaiezu zure etxekoei hitz hauek nola esaten dituzten” edota horrelako ariketatxoekin haurrak hausnartzera daramatzagu.

Aurreko paragrafoan aipaturiko proposamenak egiteko, Etxebarria, A. eta Garay U. eta lag. (2014) egindako lanean azentuaren ataletik ideia batzuk atera litezke eta ariketa ezberdinak sortu ikasgelarako. Horrez gain, Mendebaldeko Kultura Elkarteak sortutako Irakurketa ozena Bizkaian lantzeko eta berau ebaluatzeko materiala (2005) ere badago eskuragai.

Mota honetako ariketak ia inoiz ez dira egiten eskoletan eta ez gara benetan konturatzen zelako garrantzitsua den. Izan ere, hizkuntza gure ondare kulturalaren parte da, gurea den zerbait da.

BIBLIOGRAFIA

Elordieta, G (2011) : “Hitz mailako prosodiaren azterketa eta tipologia: zenbait ondorio euskararen hezkuntzarako” in G. Aurrekoetxea eta I. Gaminde (koor), *Prosodiaz eta Hezkuntzaz I. Jardunaldiak / I. Jornadas sobre Prosodia y Educación, Bilbao, UPV-EHU.*

Etxaburu, M (2005) Lan metodologia: Transkripzioak. *Ondarruko arrantzaleen lexikoa eta toponimia* (27-28. or.) 2014-02-10
http://www.euskara.euskadi.net/appcont/tesisDoctoral/PDFak/Mikel_Etxaburu_TESI.pdf- tik hartua

Fujisaki (2004) “Information, Prosody and Modeling”, *Proceedings of Speech Prosody*, (6.or.) Japonia, Nara.

Gaminde, I. (1999): “Etxeko azentua eta eskolako azentua: azentuera bien azterketa”, *Uztaro*, 28, 89-98.

Gaminde, I. eta Goikoetxea, U. (2005): *Irakurketa ozena lantzeko materialak Bizkaian*, Bilbo, Mendebaldeko Kultura Alkartea

Gaminde, I. eta Goikoetxea, U. (2005): *Irakurketa ozena ebaluatzeko irizpideak Bizkaian*, Bilbo, Mendebaldeko Kultura Alkartea

Gaminde, I. (2010): *Bizkaiko gazteen prosodiaz: euskaraz eta gaztelaniaz*, Bilbo, Mendebalde Kultura Alkartea eta Bizkaiko Foru Aldundia.

Gaminde, I. (2011): “Noraka Euskal Azentuak?” in G. Aurrekoetxea eta I. Gaminde (koor), *Prosodiaz eta Hezkuntzaz I. Jardunaldiak/ I. Jornadas sobre Prosodia y Educación, Bilbao, UPV-EHU.*

Gaminde, I., Aurrekoetxea, G., Etxebarria, A., Garay, U. eta Romero, A. (2014): “Ahoskera lantzeko argibideak eta jarduerak” (UPV/EHU-k argitaratzeko)

Garay, U. eta Etxebarria, A. (2010): "Irakasleen komunikazio-gaitasuna: hausnarketarako gaia", *Uztaro*, 73, 39-48.

Garay, U., Etxebarria, A., Gaminde, I., Romero, A. (2011): "Informazio paralinguistikoaren adierazpidea gaitasun prosodikoaren osagaitzat" in J.M. Correa eta D. Losada (ed.) *Construyendo la identidad investigadora/ Identitate ikertzailea sortuz*, Jornadas de Psicodidáctica, Bilbao.

Gardner, H. (1983): The idea of multiple intelligences. *Frames of mind: The theory of multiple intelligences* (1st chapter). Estatu Batuak, Basic Books

HEZKUNTZA UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA (2010): Haur hezkuntzarako, lehen hezkuntzarako eta batxilergorako dekretu curricularrak Euskal Autonomi Erkidegoan, Vitoria-Gasteiz. 2014-02-25ean http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-5473/eu/contenidos/informacion/dia2/eu_2023/adjuntos/decretos_curriculares/dc_educ_basic_e.pdf - tik hartua.

Hualde, J.I. (1996): Accentuation and empty vowels in Ondarroa Basque: Against the concept of phonological derivation. *Lingua* (197-206 or.) United States: University of Illinois

Hualde, J.I. (2011): "Hitz-mailako prosodiaren azterketa eta tipologia: zenbait ondorio euskararen hezkuntzarako" in G. Aurrekoetxea eta I. Gaminde (koor.), *Prosodiaz eta Hezkuntzaz I.Jardunaldiak / I. Jornadas sobre Prosodia y Educación*, Bilbao, UPV-EHU.

Hyman, L. (2009): How (not) to do phonological typology: the case of pitch-accent. *Science Direct* (213-214 or.) United States: University of California, Berkeley. 2014-03-28an <http://udel.edu/~heinz/classes/2012/861/materials/readings/Hyman-2009-phonological-typology-pitch-accent.pdf> - tik hartua.

Hymes, D.H (1972). « On Communicative Competence » In : J.b Pride and J.Holmes (editors) *Sociolinguistics, Selected Readings*. Harmondsworth: Penguin, pp. 269-293 (Part 2)

Krashen, S.D. (1982). *Principles and Practice in Second Language Acquisition*. Oxford: Pergamon

Mijon, P. (2004): 2014-03-01ean <http://www.fle-philippemijon.com/tag/prosodie/>
- tik hartua

Shih & Kochanski (2002): 2014-03-02an
<http://kochanski.org/gpk/prosodies/section1/>- tik hartua

ERANSKINAK

1. Eranskina: Hitzen zerrenda

ETXEKO EREDUA

Izen eta adjektiboak

ó-o: úre, lúrre, léku, máxe, txístu, déndi, básu

o-ó: burú, astú, semí, neskí, txistú, basú

o-ó-o: sagarra, intxáurre, lengúsu, ogíxe, txakúrre

o-o-ó-o: alkondári, karramárru, aberátsa, alargúne

Talde Klitikoak

Úre ra	burú re	intxáurre ra	alarguné ra
Lurré ra	astú re	lengúsu re	
Léku re	semí re	ogixé ra	
Máxe ra	neskí re	txakurré ra	
Txístu re	txistú re	alkondári re	
Déndi re	basú re	karramárru re	
Básu re	sagarrá ra	aberatsá ra	

ESKOLAKO EREDUA

Izen eta adjektiboak

ó-o: úra, lúrra, dénda, néska

ó-o-o: txístua, básua

o-ó-o: lekúa, maháia, burúa, astóa, seméa, txistúa, básúa, sagarra, intxáurra, ogía, txakúrra

ó-o-o-o: léngusua

o-ó-o-o: alkándora, abératsa

o-ó-o-o-o: edálontzia, karrámarroa, alárguna

Talde Klitikoak

Úra da	burúa da	intxáurra da	alárguna da
Lúrra da	astóa da	léngusua da	
Lekúa da	seméa da	ogía da	
Maháia da	néska da	txakúrra da	
Txístua da	txistúa da	alkándora da	
Dénda da	basóa da	karrámarroa da	
Básoa da	sagárra da	abératsa da	

2. Eranskina: Kalkulu orrien adibideak

Zen	▼ Info	▼ Gen	▼ Sarrera	▼ Sil	▼ Onda	▼ Batu	▼ Bardin	▼
		1 n	ura		úre	úra	b	
		1 n	lurra		lúrre	lúrra	b	
		1 n	denda		déndi	dénda	b	
		1 n	neska		neskí	néska	e	
		1 n	leku		tokíxe	tokía	b	
		1 n	mahaia		máixe	maháia	b	
		1 n	txistua		txistu	txistúa	e	
		1 n	listua		txistú	txistúa	b	
		1 n	edalontzi		básu	edálontzia		
		1 n	buru		burú	burúa	b	
		1 n	asto		astú	astóa	b	
		1 n	seme		semí	seméa	b	
		1 n	baso		mendíxe	mendía	b	
		1 n	sagarra		sagárra	sagárra	b	
		1 n	intxaurra		intxáurre	intxáurra	b	
		1 n	lehengusu		lengúsu	lengúsua	b	
		1 n	ogia		ogíxe	ogía	b	
		1 n	txakurra		txakúrre	txakúrra	b	
		1 n	alkondara		kamiséti	alkándora		
		1 n	karramarroa		karramárru	karrámarroa	e	
		1 n	aberatsa		aberátza	aberátsa	b	
		1 n	alarguna		alargúne	alárguna	e	

Info	Gen	Sarrera	Onda	Batu	Bardin
	1 n	ura da	uré ra	úra da	e
	1 n	lurra da	lurré ra	lúrra da	e
	1 n	denda da	déndi re	dénda da	b
	1 n	neska da	neskí re	néska da	e
	1 n	lekua da	tokíxe ra	tokía da	b
	1 n	mahaia da	máixe da	maháia da	b
	1 n	txistua da	txístu re	txistúa da	e
	1 n	listua da	txistú re	txistúa da	b
	1 n	edálontzia da	básu re	edálontzia da	l
	1 n	burua da	burú re	burúa da	b
	1 n	astoa da	astú re	astóa da	b
	1 n	semea da	semí re	seméa da	b
	1 n	basoa da	mendixé ra	basóa da	l
	1 n	sagarra da	sagarrá ra	sagárra da	e
	1 n	intxaurra da	intxáurre ra	intxáurra da	e
	1 n	lehengusua da	lengúsu re	lengúsua da	b
	1 n	ogia da	ogixé ra	ogía da	e
	1 n	txakurra da	txakurré ra	txakúrra da	e
	1 n	alkandora da	alkondári re	alkándora da	e
	1 n	karramarroa da	karramárru re	karrámarroa da	e
	1 n	aberatsa da	aberatzá ra	abératsa da	e
	1 n	alarguna da	alarguné ra	alárguna da	e